



PRENTSARAKO OHARRA

18/12/28

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bermeoko Udalak, Gaztelugatxera ailegeta erraztuko dauen 354 lekuko aparkalekua eregitea adostu dabe

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bermeoko Udalak, *Gaztelugatxeko Donieneko Biotopoaren jarduketa eta kudeaketa integralerako dokumentuak* ezarten dauen esku-hartzeko esparruaren barruan, Bermeoko Itxas Gane futbol zelaiaren eta hilerriaren ondoan egongo dan aparkalekua eregiko dabe. 8.013 m²ko azalerea eukiko dau, eta 354 aparkaleku egongo dira bertan.

Jarduketa horren, eta Aldundiak aurrera eroan gura dituan beste neurri batzuen helburu nagusia “Gaztelugatxe ingurunean aparkatzeko lekuak antolatzea” da, eta baita “aurreikusten dan eskariari erantzuna emoteko espazio barriak egokitzea” be. Unzuetak adierazo dauenez, bisitarien “%80 inguru” ibilgailu partikularrean gerturatzen da Gaztelugatxera. Hori kontuan izanda, “definidu dan estrategiaren funtsezko elementuetako bat mobikortasunagaz lotutakoa da, inguru horretan bestelako modelo bat bultzatzeko filosofiagaz”.

Proiektuaren aurrekontu osoa 637.836,67 eurokoa da, eta lanak Bermeoko Udalak egingo ditu. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak 515.000 euroko diru-laguntzea emon dau.

Batzarretako taldeei jagokenez, Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak, datorren urteko udabarrirako aurreikusten dan turista kopuruaren hazkundera aitatu deutso Diputatuari, Tronu Jokua seriea bukatu egiten dala eta. Jesús Isasi batzordekide popularrak, bere aldetik, “presa barik baina gelditu barik” behar egin beharra dala adierazo dau. Holan, Gorka Beitia Euzko Abertzaleak taldeko batzordekideak gogoratuazo dauenez, gai horretan hainbat eragile dagoz inplikauta eta, hori dala eta, “koordinetea ez da erraza, eta prozesua moteldu egiten dau”.

Euskal Sozialistak eta Podemos taldeak pozik agertu dira neurri hori dala eta. “Ikusten danez, borondate politikoa dagoanean, diru-laguntzak eta komunikazinoa egon, badagoz”, azpimarratu dau Josean Elguezabalek. EH Bilduk be bat egin dau eretxi horregaz.

CRYPTOMERIA JAPÓNICA

Urteko azkeneko saioa, Talde Mistoak eskatutako agerraldi eskariATEGAZ zabaldu da, Pinuaren minbiziak eragiten ez deutsan *Cryptomeria japonica* pinu espeziea Bizkaian sartzen hasi ezkeru, osasun publikoan sortuazoko leukezan “arazoen” inguruan, “biztanle askorengan alergiak sortzen dituan hauts asko botaten dauelako”. Bere eretxiz, horrek, “masa handietan arazoak sortzen dituan espezie” bilakatzen dau.

Foru Diputatuak azaldu dauenez, hiru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta sektore pribaduak parte hartzen daben koniferoen basoak berreskuratzeko Euskal Estrategiaren barruan, Bizkaiko Basoen Jabeen Elkarteak, “alternatibo” moduan sailkatuta dagozan 44

espezie ingururi buruzko informazioa emoten dau. Holan, Cryptomeria japonica espezia da, banda marroi izenekoak eragindako azalaren jaube diran personei edo erakundeei informazioa emoteko orduan aitutzen dan espezietako bat, “ordezteko aukerak aztertu daitezán”.

Une honetan, Foru Diputatuak adierazo dauen moduan, Aldundia, “Frantzian dagon Britainia lurraldeko haztegiatoko hainbat klonen adar-aldaxkak sustraitzeko fasean” dago. Horreek 2019 – 2020ko neguan landatuko litzatekez, lur-sail esperimentaletan.

EH Bildu taldeak kritikau egin dau egungo baso ereduaren “porrota”. Dana dala, Euzko Abertzaleak taldea ez da ezelan be horregaz ados agertu.

KONTROL BAKO ZABORTEGIAK

Elena Unzueta Foru Diputatuak, Alonsotegiko errepide baten bazterretan oraintsu agertu diran kontrol bako zabortegeien egoeraren barri emonez itxi dau urteko azkeneko Batzordea. Zehatzago esanez, hondakinak Kadaguako Igarobidea (BI-636) eregiteko lanetan egin zan bide batean itzi ziran. Bide hori, lanen eragina jasan eben bideak berreskuratzeko eregi zan, inguruko hainbat landa gunetara heltzeko, eta baita Montealegren dagon Kadaguako Igarobidearen lanetarako soberakinen depositura ailegetako be.

Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako titularrak, Talde Mistoak eskatuta adierazo dauen moduan, holango “jokabide ez zibikoak” ez dira gauza isolatua. Zemendiaren 26an eta 27an, tratamenturako baimendutako kudeatzailearengana eroan zan materiala; horrez gain, Aldundiak hesiak jartea aurreikusi dau bidearen hasieran, aurrerago itxidurako ate bat jarteko.

NOTA DE PRENSA

28/12/12

Diputación Foral de Bizkaia y Ayuntamiento de Bermeo acuerdan la construcción de un parking con 354 plazas que favorezca la accesibilidad a Gaztelugatxe

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bermeo, en el marco de intervención fijado por el *Documento de actuación y gestión integral en el Biotopo de San Juan de Gaztelugatxe* llevarán a cabo la construcción de un aparcamiento disuasorio que se situará junto al campo de fútbol Itxas Gane y el cementerio de Bermeo, con una superficie de 8.013 m² y con disponibilidad para 354 plazas.

Esta actuación, junto con otras medidas que la Diputación está interesada en desarrollar, tiene como principal objetivo “la reordenación de los espacios de aparcamiento en el entorno de Gaztelugatxe”, así como la “adaptación de nuevos espacios para dar respuesta a la demanda prevista”. En este sentido, Unzueta ha apuntado que “cerca del 80%” suele acudir a Gaztelugatxe en vehículo particular, por lo que “uno de los elementos clave de la estrategia definida es el vinculado con la movilidad, bajo la filosofía de impulsar un modelo diferente al enclave”.

El presupuesto total del proyecto asciende a 637.836,67 euros, y las obras serán acometidas por el Ayuntamiento de Bermeo. Para ello, la Diputación Foral de Bizkaia ha otorgado una subvención por importe de 515.000 euros.

Por parte de los grupos juntero, el portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha advertido a la Diputada sobre el incremento de turistas previsto para primavera del año que viene a causa de la finalización de la serie Juego de Tronos. El apoderado popular, Jesús Isasi, por su parte ha instado a trabajar “sin prisa pero sin pausa”. En este sentido, el apoderado del grupo Nacionalistas Vascos, Gorka Beitia, ha recordado que existen muchos actores implicados en este tema por lo que “coordinarlo no es fácil y ralentiza bastante”.

Tanto el grupo Socialistas Vascos como Podemos se han congratulado por esta medida. “Se ve que cuando hay voluntad política hay subvenciones y comunicaciones”, ha manifestado Josean Elgezabal. Una idea a la que también se ha sumado EH Bildu.

CRYPTOMERIA JAPÓNICA

Esta última sesión del año ha abierto con una solicitud de comparecencia planteada por el Grupo Mixto en torno a “la problemática” que generaría la futura plantación comercial de la especie resistente a la peste del pino *Cryptomeria japónica* en Bizkaia para la salud pública por “producir grandes cantidades de polen que genera alergias en una parte de la población”. Esto, a su juicio, la convierte en una “especie problemática en grandes masas”.

La Diputada Foral ha explicado que, en el marco de la Estrategia Vasca para la recuperación de los bosques de coníferas en la que participan las tres Diputaciones, el Gobierno Vasco y el sector privado, la Asociación de Propietarios Forestales de Bizkaia

ofrece información sobre alrededor de 44 especies denominadas “alternativas”. Concretamente la Cryptomeria japónica es una de las especies de las que se encuentran ofreciendo información a las personas o entidades propietarias de superficie afectada por la banda marón, “de cara a que analicen las posibilidades de sustitución”.

Actualmente, tal y como ha señalado, la Diputación se encuentra “en fase de enraizamiento de estaquillas de diferentes clones de huertos semilleros de la región francesa de Bretaña, que serían plantadas en invierno del 2019 – 2020 en parcelas experimentales”.

El grupo EH Bildu ha criticado el “fracaso” del modelo forestal actual, una afirmación con la que el grupo Nacionalistas Vascos se ha mostrado totalmente en desacuerdo.

VERTEDEROS INCONTROLADOS

La Diputada Foral Elena Unzueta ha cerrado la última Comisión del año dando cuenta de situación de los vertederos incontrolados que han aparecido recientemente en las cunetas de una carretera en Alonsotegi. Concretamente se depositaron en un vial ejecutado durante las obras de construcción del Corredor del Kadagua (BI-636) como reposición de viales afectados que permitían el acceso a diversas rurales de la zona, así como para permitir el acceso al depósito de sobrantes asignado a la obra del Corredor del Kadagua, situado en Montealegre.

Tal y como ha explicado la titular del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural a petición del Grupo Mixto, este tipo de “comportamientos incívicos” no se tratan de un hecho aislado. Durante el 26 y 27 de noviembre el material fue trasladado al gestor autorizado para su tratamiento; asimismo, de forma provisional la Diputación ha previsto la colocación de módulos de barrera de contención en el inicio del vial, para más adelante colocar una puerta de cierre.